

BALOREZKO-PROPOSAMENA

Gure proposamena kontsoladoreak egiten dituen enpresa bat egitea da, baina besteetatik bereiziko duena izango da aplikazio bati konektatua egongo dela. Aplikazioak kontsoladorearen abiadura aldatzeko ahalmena izango du eta horrez gain, entzuten hari zaren musikaren abiaduran bibratuko du.

Gure bezeroek produktu hau erabiltzean plazerezko beste mundu batera bidaiatuko dute, horrez gain, bakoitzak bere gorputza eta sexualitatea esploratzeko gai izango dira. Horren ondorioz, jakingo dute zer gustatzen zaieten eta bere buruarengan konfiantza gehiago lortuko dute. Eta honetarako honako balioak izango lituzke:

Diseinuari dagokionez, forma eta irudi ezberdinak egongo dira gustu guztientzat, baina gure produktu izarra platano itxurako bat izango da.

Online bidez erosi ahal izango dugunez, denentzat **eskuragarria** izango da eta gainera, eskatu eta ondorengo 1 edo 2 egunetara iritsiko da.

Lehen aipatu dugun bezala aplikazio bati konektatua egongo da eta beraz, erabiltzerakoan **ez du zailtasunaik** edukiko, izan ere, aplikazioa sinplea eta ulergarria izango da.

Azkenik, gure helburuetako bat, produktu **iraultzaile** bat egitea izango da, horrela gizartearen dogmak eta aurreiritziak hautsiko ditugu denentzat den produktu bat eginez. Gure produktuak denentzako egokituak egongo dira, bai emakume, bai gizon, bai gazte...